

**FABONU, fabonua** izena. (Eibar) "Piezak illuntzeko edo pabonatzeko taillarrari deitzen jako fabonua." (SB<i> Eibetno).</i>

**FABÓRE1. fabore, faboría** (a). izena. Mesedea. • Favor. *Eztakizu zelako faboria ein ddostazun autua ekartziakin.* Ant. **fabórez**. **2. fabore** (b). posposizioa. Alde. • A favor de. *Milla duro jokatu dot zure fabore./ Aizian fabore etorri giñan denpora guztian.* NOREN fabore. Sin. **alde**. Ik.

**kontrafabóre jokatu.**

**FÁBRIKA, fábrikia** (a). izena. FRÁBIKA. Fábrica. *Gure gazte denporan etzan ainbeste frabika. Trabena, frabika, Planpona...* esaten zuten lehengo zaharrek.

**FABRÍKANTE, fabríkantia** (c). izena. FRABIKANTE. Fabricante, empresario. FRABIKANTE ere esaten zen, baserritarren artean behintzat. *Fabrikantiak urte onak arrapau zittuen.*

**FADER, faderra** (d). izena. (Oñati) FADAR. Ermitaño. • "Así llamaban al ermitaño de San Elías. <i>Faertzaia eiñ: </i>hacer el oficio de ermitaño." (Izarg Oñ)

**FÁFO, fáfua** (c). izena. (Eibar) "Banquete, comilona. *Gaur gabian fafua dogu Badetenian ogei lagunek.*

**FAILLÁU1. faillau** (b). du aditza. Huts egin. • Fallar. *Barkatu zeozetan faillau badou./ Biar etorri, ez faillau gero e.* **2. failláu, failláua** (d). adjektiboa. ( eufemismoa.) Burutik guztiz sano ez dagoena. • Persona a la que le falla la cabeza. *Oin be ei dao faillaua pixkat, ezta, mutilla Basalgon. Nik eztot ezautzen... Gauza batzutan ondo plantatze i zan, errezoietan da, baiña faillaua. Hil.*

**FÁILLO, fáillua** (b). izena. Fallo. *Faillo aundixa euki dozu amai ez esatiakin./ Beti failluak topatzen zabitz./ Orrek buruko faillua jaukak.*

**FAISAN, faisána** (b). izena. Faisán.

**FALSÁ-ESKUADRA, falsá-eskuadria** (c). izena. Angeluak neurtzeko erabiltzen den tresna. Neurtu nahi den piezaren alde biak ondo ipinita daudenean, puntan duen torlojuarekin finkatzen da. *Eskuadria ta falsa-eskuadria, betik ori entzun izan dot. Falsa-eskuadria mobiblia, fijo eztana, graduak eitteko. Lar.*

**FÁLTA1. fálta, fáltia** (a). izena. Falta, carencia. *Diru faltia dago familixa askotan./ Igarriko dabe zure faltia.* ZER(en) falta ia beti. Oso nekez bestela: *Beste kotxe bat erosi dau; faltia eukiko zeban da.fálta edérra* (b). esapidea. Buena falta. *Aparkamentu baten falta ederra dago./ Neuri be kotxiak falta ederra eitten dost pa.* **fálta eiñ** (a). du aditza. Hacer falta, necesitar. *Ointxe erloju batek falta eitten dost./ Oin gastau, ta falta eitten dabenian eskatu.* Ik. **sínfalta**. **2. fálta, fáltia** (b). izena. Akatsa, hutsegitea. • Defecto, fallo. *Neure faltaz geratu giñan ekonomikia jarri barik.* NOREN faltaz. Bakoitzak jakitteittu bere faltak.**Bestien faltak aurreko aldian, guriak bizkarrian** esaera. "Norberaren akatsak ez dira ikusten." (Lar <i>Antz)</i>**fálta eiñ** (a). Pelotan, tenisean, etab. txarra egin; futboleant etab. joku-araua hautsi. *Azkenengo tantuan falta ein zeban saketik./ Defensa orrek falta asko eitten dau.faltak etara* (a). esapidea. Sacar faltas. *Iñoi faltak etaratzen jardutia gustatze jako.***3. fálta izan** (a). da-du aditza. Faltar, carecer. *Azugarra falta da ta billa noia./ Zer falta jatzu?/ Zure aittajunai bakarrik falta jakon fraille sartzia.* Aditz honek ez ditu -tu eta -tzen aspektuak hartzen; -ko, ostera bai: *Oinddio be zeoze faltako jako. "Falta izango", ere bai. NOR eta NOR-NORI, batik bat, baina NOR-NORK bezala ere entzuten da: Ezer falta bozu (edo bajatzu) eskatu. Hilarik PALTA darabil. Ogixa ero gauzia ero palta zanian Elusuko Bentara jute ei zien.*

**FALTÁU** (b). dio-du aditza. Iraindu. • Faltar, agraviar. Behin Plazentzian gertatutakoa: badago herriko medikua tabernan kafea hartzen eta inguruan gazte-talde bat ei zebilen zarata baten. Halako baten gazte batek galdetzen dio medikuari:

**FALTÓE, -I, faltóia** (b). adjektiboa. Faltón, -a. *Eneban uste ain faltoia zanik.*

**FÁLTSO, -U, faltsúa** (b). adjektiboa. Falso, -a. *Arpegira ondo berba eingosk, baiña kontuz orrekin, faltsu utsa dok eta./ Milla pezetako faltsua sartu doste.* Pertsonen zein gauzez.

**FALTSUKERÍXA, faltsukerixía** (b). izena. Falsedad. *Nai dabenak nai daben ideak euki daixela, baiña neri faltsukerixiak emuten jostak amorrua.*

**FÁMA, famía** (a). izena. Fama.

**FAMÁU1. famáu, famáua** (c). adjektiboa. Famatua. • Afamado, -a, famoso, -a. *Pelikula ori famaia izan zonan gure gazte-denporan.* Gaur egun FAMOSO, -A entzuten da gehiago. Ben.k FAMAUTAKUA darabil esaldi honetan: Abraiñ-errekan sorgiñak egoten ziela, aura famautakua betik, Abraiñ-errekan sorgiñak.**2. famau** (c). du aditza. Fama eman norbaiti edo zerbaiti. • Ensalzar. *Enaiz sekula izan Fiteron baiña asko famatzen dabe./ Abade berrixoi famau biarra bazeukan beintzet. famauta egon* (c). Famate egina egon. *Ori Berga guztian famauta zeuan medikuorrekin zebilelako. Orduan orrek bakizu zelako pekatuak zien... (Lar Antz)* Fama txarra, goiko&raquo; esaldi honetan. Ik. **famósa**.

**FAMÍLIXA, famílixia** (a). izena. FAMÉLIXA. Familia. *Famelixa galanta zan. Eli. famílixia izan* (b). Dar a luz la mujer. "Alakok famílixia izen dau"; ero, " Sin. **umia izan**. Ik. **librau**.

**FAMÓSA, famosía** (c). adjektiboa. Neska mutilzaleari, "erreputazio txarrekoari", esan ohi zitzaion. • *Decíase de las chicas que no eran excesivamente recatadas o púdicas en su trato con los chicos. Orren ama gaztetan bastante famosia izandakua da.* Ik. **fándanga**.

**FAMÓSO, famosúa** (a). izena. Famoso. Ik. **famáu**.

**FAN** Ik. **joán**.

**FÁNDANGA, fándangia** (c). adjektiboa. Ik. famosa. Zentzu berdintsua dute. Beharbada, <em>famosa</em> baino zentzu sexual gutxiago eta parrandera gehiago du. *Dibertitzeko lotsaiek etzeukan neskaia fandangia zala esate jakon.* Ik. **famósa**.

**FÁNDANGO, fándangua** (b). izena. Dantza ezaguna. Ik. **putá-fándango**.

**FANFARRÉIXA, fanfarreixía** (c). izena. Fanfarreria, fanfarroikeria, harrokeria. • Ostentación, alarde. *Boxeadore orrek fanfarreixa geixegi dauka gauzonerako. fanfarreixáik ez euki* (c). esapidea. Ugaritasunik edo pozik egoteko motiborik ez egon, horrelakoetan: *Aurten babatan eztago fanfarreixa aundirik baba gutxi, alegia)/ Erropatan eztaukazu fanfarreixaik (arropa gutxi, edo txarrak)/Ointxe arek pe eztarabil ba fanfarreixa aundirik (osasuna, dirua edo zerbait falta). fanfarréixak jo* (c). esapidea. Erronkak jo. *Orrri fanfarreixak joten ibiltzia gustatze jako.* Sin. **panpana jo**.

**FANFARRÓE, -I, fanfarróia** (b). adjektiboa. Fanfarrón, -a.

**FARDEL** PARDEL. **1. fardel, fardéla** (d). adjektiboa. Arlotea. • Desarrapado, -a, vago, -a. *Fardela esan izan dok... persona arlote xamarragatik pe bai. Klem.* Ik. **arlóte**. **2. fardel, fardéla** (c). izena. Umea painaletan edo fraketan kaka eginda dagoenean fardela daukala esan ohi da. • Se dice que lo tiene el niño cuando se ha cagado encima. *Goiz guztia fardelakin da amak kasoik pez.* **3. fardel, fardéla** (d). izena. "Baba zakuari hala deitzen zitzaion. Normalean pentsutarako baba beltza izaten zen, eta 80 eta 100 kilokoak ziren." (Lar <i>Antz</i>)

**FÁRDO, fárdua** (c). izena. Lastoz, alfalfaz, etab. eginiko pakete handia. • Fardo, paquete de forraje prensado y atado. *Lasto-fardo bakoitza ogei duro pagau dot./ Oingo makina aundixak, berak eitteittue farduak.* Ik. **lastófardo**.

**FÁRMAZIA, fármazia** izena. Farmacia.  
Ik. **bótika**.

**FÁROL** **1. farol, faróla** (b). izena. Farol de mano. *Farola artu ta joan Narbaizara errekaue eittera.* Kristalezkoa da, ertzak eta heldulekua metalezkoa, barruan kandelarekin. **2. farol, faróla** (b). adjektiboa. Ostentoso, -a, farol. *Pelotari ona da, farola izatia eze.*

**FARRA-FÁRRA** (b). onomatopeia. FIRRI-FÁRRA. Ugaritasuna edo erraztasuna adierazten duen onomatopeia. Profusamente, con suma facilidad, abundantemente. *Atzo gabian bertsuak farra-farra botatzen gi&ntilde;uzen./ Dirua farra-farra darabille orrek.* Sin. **sarra-sarra**.

**FARRANDA** Ik. **párranda**.

**FARRANDERO** Ik. **parrandéro, -a**.

**FARRASTARA** Ik. **barrastára**.

**FÁTU** **1. fátu, -o, fátua** (d). adjektiboa. Haundi-ustekoa, hitz egiterakoan haundi-uste hori azaltzen duena. • Fatuo, -a. *Ezebez izan da etxuat entenditzen ain persona fatua zela izan leiken.* **2. fatu, fatua** "Destino. *Ori da fatua familixiak.*

**FÁZILL, fazílla** (c). adjektiboa. Erraza. • Fácil. *Zana etaratzia fazilla da ta, pinziakin ebatu, nesken betuliak etaratzeko pinza batzugin. Enr./ Eranai laga nai jotsat baiña eztok fazilla./ Ain difizilla balitz eleukek ainbestek igoko Everestera.* Adineko hiztun on banaka batzuek erabilia. Bergaran gaur egun ia ez da entzuten. Bizkaia aldera eta Eibarren esanagoa. Erdal hitzak sartzea ondo ikusia zegoen joan den mendearen lehen partean, zenbait girotan.

**FÉBRERO, fébrerua** (a). izena. FRÉBERO. Otsaila. • Febrero. "Frébero" ere entzuten zitzaien gure aurretikoei. Ik. **katúill, otsáill**.

**FÉDE, fedía** (a). izena. Fe. *Zelako fediakin errezatzen daben./ Orrek bere partiduai dotsa fedía./Entrenadorie oso inportantie dok hik fede apur bat badutzek. (AA ArrasEus, 186. o.).* ZERI, ZERTAN edo ZEREKIN fedia izan edo euki. **fede onían** (c). esapidea. De buena fe. *Eta danak fede onian zebillelakuan, baiña bai zera.* **fede txarrian** (c). esapidea. De mala fe. *Eztot uste fede txarrian eingo zebanik.* **fedía emon** (d). dio aditza. Sinesgarritasuna eman. • Dar crédito o confianza. *Arek esaten dabenai etxotsat fede aundirik emoten./ Fede puxkat emon bia jakue gaurko gaztiei.* **fedía zerbaiti izan** (c). esapidea. Zerbaitekin konfiantza handia izan. *Gure amak fede aundixa dotsa berbena bedarrai.* Zentzu erlijiosoan ere bai, jakina. Batzuk badotse fedia Ezkioko amabirjiñiai.

**FEDÉDUN, fededúna** (a). izena. Fedea duena (jainkoarengan, batik bat). • Creyente.

**FEDÉTSU, fedetsúa** (b). adjektiboa. Fede handikoa. • Creyente fervoroso.

**FÉRIXA, férixia** (a). izena. PÉRIXA (OS.). Ganadu-azoka. • Feria de ganado. *Gabon-zar egunian izaten da Elgoibarko ferixia./ Aaittik juten i zan perixetara. Hil./ Ze Jose Martiñ, e, perixan-perixan bazkaixa? Hil.* Ik. **azóka**.

**FERÍXALEKU, feríxalekua** (c). izena. Ganadu-feria egiten den lekua. *Bideberrin zeuan len feríxalekua.*

**FÉRIXA NAUSÍKO, Férixia Nausikúa** (c). izen propioa. FERIXA NAUSI, FERIXA NAUSIKO EGUN. Urteko feria nagusia. Hemen Elgetakoa ezagutzen da, batik bat, izen honekin. • La feria mayor de Elgeta, que se celebra el primer domingo de julio. *Azkenengo Ferixa Nausikuan sekulako eurixak ein zittuan./ Datorren domekan da Ferixa Nausiko.*

**FERÍXANTE1. feríxante, feríxantia** (d). izena. Ganadu-feriara jon ohi den baserritarra. • Baserritarra que acude asiduamente a la feria del ganado. *San Juango lau an zetozen ferixantiak, kamiñua betian, lapur billur barik.* **2. feríxante, feríxantia** (d). izena. Ferietako (ez berdura plazako) saltzailea. • Vendedor ambulante de feria *Gero ta ferixante gutxiao izaten da Erramu-zapatu egunian.* Ik. **elíztar, eskólante**.

**FÉROS, ferósa** (d). adjektiboa. (Antzuola, Oñati) Indarrez datorren landare, pertsona edo animalia.

*"Artua feros dao." (Izag Oñ)/ "Feros dator: Viene con fuerza una planta." (Izag Antz).*

**FÉRRAN** (d). izen propioa. Antzina erabiltzen zen pertsona izena. • Fernando. *Atxotegiko Ferrandon aittajuna Ferran zuan.*

**FESTOI, festoia** (a). izena. Festón (bordadu mota bat). *Ta pallekazko ero zea, festoiekin dda, amantalak erabiltzen giñuzen, jaiko amantalak. Juana.*

**FETXORÍXA, fetxorixía** (c). izena. Fechoría. *Parte emuotxenian, abuentau eziñak pe emonda..., lapurretia ta fetxorixa aundixak ardixan-da, danian-da, etxetara-ta. Hil.*

**FÍDEO, fídeua** (a). izena. Fideo.

**FÍDEO-ZÓPA, fídeo-zopía** (b). izena. Sopa de fideo.

**FIÉSTA, fiestía** (b). izena. Fiesta, sobre todo en el sentido de juerga. *Zerbeza batzuk eta tokadiskos zar batekin egundoko fiestia montau giñuan.* Herriko festei **jaixak esan ohi zaie, nekez fiestak.** **fiestán ibíli** (c). esapidea. Jolasean ibili; elkarri kili-kili eginez, tira eta bultzaka, burrukan, eta horrela. Baita animalia batekin, txakurrarekin adibidez, jolas egin. • Jugar a peleas, a hacer cosquillas, etc. Jugar con el perro u otros animales. *Alkarrekin fiestan ibiltzia gustatzen jakue eta azkenian asarretu eitten die./ Txakurkuma bixak denpora guztia fiestan dabitx.* **fiestaráko gógo, fiestaráko gogúa** (c). esapidea. Jolaserako gogoia. • Ganas de jugar, de fiesta. *Uste dot gaur gure*

*andria fiestarako goguakin dagola./ Ikusi nebanian diruagaittik zebillela derrepente joan jatazen fiestarako goguak./ Paruan dago ta eztauka fiestarako gogoik.* Askok erabilia izan da, testuinguru askotan: sexu-jolasa, eztabaida eta haserre, haur edo animaliekiko jolasa, etab.

**FIGÚRA1. figura, figuría** (c). izena. Itxura. *Ardixak buztana zetako; jarasteko be traba eitten dau atzian, da beti traba eitten dotsa. Figuria be kendu eitten da... Luis./ Eztauka figura aurrenengua.* Esan ohi da pertsona batek "figuria bakarrik" daukala, oso argala dagoenean. **figuráik pe ez izan** (c). esapidea. Ideiarik ez izan. *Umia eukitzia zer dan ezta; ezta figuraik pe. Buenoo! Gizonak ezta pentsau be aura padeziuta eitte zanik pe. Mertz./ Arek eskribitzen eztauka figuraik pe.* **2. figura, figuría** (c). izena. Oso argala delako, biboteak daramatzalako, oso pintaturik dabilelako... norbaitez esan ohi dena. Argalengatik, batik bat. • Palabra usada sobre todo por personas mayores al referirse a gente muy delgada, bigotuda, maquillada, muy preparada... *Eztozu ezautzen orren andria? Bai, alako figura bat.* **figurakeríxetan ibilli** (c). esapidea. Nabarmen ibili, "figura" baten gisa ibili. • Andar llamando la atención por el vestido, peinado, etc. *Orri figurakerixetan ibiltzia gustatzen jako.* Ile-mototx berde batekin dabilelako, adibidez.

**FIGURIÑ, figuríña** izena. "Arropa irudiak eta josteko patrioiak izaten dituen aldizkaria. *Orduan be bazeen figuríñak, eta kortia erakustekuak e bai.*" (Lar Antz).

**FIJÁU** (a). da aditza. Fijarse. *Etza bape fijatzen.*

**FIJO1. fijo** (a). adberbioa. Fijo. *Fijo artu dabe lanian./ Soka ori eztao fijo.* **2. fijo, fíjua** (a). adjektiboa. Fijo, -a. *Gure taillerrian fijuak igual kobratzen dabe.*

**FILÁRMONIKA, filármonikia** (c). izena. Ahoko soinua. • Filarmónica. *Elizpian Tomasek filarmonikia jo ta neska-mutil kuadrillia dantzian.* Batzuek esku-soinuari *filarmónika aundi deitzen diote, eta ahokoari filarmonika txiki.* Sin. **aóko sóiñu, ezpanetako sóiñu.** Ik. **eskúko sóiñu.** **filarmonikian moduan** (c). esapidea. Kotxea hala gelditu dela esan ohi da istripu larri bat izan duenean. *Arbolia jo eta filarmonikian moduan geratu zuan Audi barrixa.*

**FILETE, filetie** (a). izena. (Leintz) Filete. Sin. **tajáda.**

**FILTIRE, filtiria** (d). izena. Bordadu klase bat. *ori aujekin, olako kajatxo bat izaten da; an orratzak. Bordaua bezalaxe izaten zan. Maria.*

**FÍNDDU1. finddu** (b). da-du aditza. Volverse fino o trabajador, mejorar la calidad. *Ezkonduraz asko finddu da./ Aspaldixan jana asko finddu da taberna onetan.* Ik. **bastótu.** **2. finddu** (b). du aditza. Leundu. • Alisar. *Ertzak finddu eixozu pieza orri.* **Leundu** gehiago testuinguru honetan.

**FIÑ1. fiñ, fiña** (b). adjektiboa. Langilea. • Trabajador, -a, laborioso, -a. *Oso fiña ei da lanian.* Ant. **nagi, zuri.** **2. fiñ, fiña** (b). adjektiboa. Fino, -a, de buena calidad. *Atuna baiño fiñaua da legatza.* Ant. **básto.** **3. fiñ, fiña** (b). adjektiboa. Haizeaz, freskoa. *Aize fiña zebillen goizian.*

**FÍO1. fío, fíua** (c). izena. Silbido. *Fíua entzun orduko etortzen da txakurra.* Sin. **txístu. fíua jo** (b). du aditza. Silbar. *Kalian ziar fíua jotzen pozik zoian mutilla./ Fío eixozu aittai bazkaltzera etorri deiñ.* Sin. **txístua jo.** **2. fio, fiua** izena. (Eibar) Corriente de viento frío. *Itxizu ondo atia, sekulako fiua sartzen da eta.* (SB Eibetno).

**FIRI-FÍRI** (c). onomatopeia. Haize leun eta finak arboletan ateratzen duen hotsa. • El rumor del viento suave y fresco en los árboles. Berba onomatopeikoa. *Oi&ntilde; sargori dago bai&ntilde;a*

goizian aizia firi-firi zebillen.

**FIRÍ-FARA1. firi-fara, firi-faria** (c). izena. Hala deitzen genion Uberako gazteok geneukan akordeoi zahar bati. *Loiolako mojei erosi gontsen firifaria./ Zuen ganbaran egongok firifaria.* Mugatuan.**2. firi-fara, firi-faría** izena. (Eibar) Tornu-burua; zulatze, torniatze eta beste zenbait eragiketa (otxabuketa, hari-emotea, etab.) egiteko erabiltzen zen tresna. • Cabezal para tornillería, cabezal auxiliar. *Nok esango leuke, batzuek firi-fara koxkor batekin torlojogintzan bizimodua ataritzen dabela; ondotoxo irabazitta gaiñera.* (SM Burdin) **3. firi-fara, firi-faría** izena. (Eibar) Taladro rústico.

**FIRÍN-FÁRAN** (c). adberbioa. Edozein modutan (ibili), ezere ardua barik. • Despreocupadamente. *Oiñ arte or ibilli aiz firin-faran, baiña oiñ estutu biakok.*

**FIRÍNGALO, firíngalua** (c). izena. Jilguero. *Firingalua daukau kaixolan.* Sin. **jilgero, kardántxillo.**

**FIRRI-FARRA** Ik. **farra-fárra.**

**FIST** **FIXT.** "Aguro eta errez. *Jostorratza tela fiñian hobeto! Ha fixt juaten da.*" (SB Eibetno).

**FIUA/EZPALA BAIÑO ARGALUA IZAN.** (c). esapidea. Oso argala izan.

**FÍXANTZA, fixantzia** (d). izena. Fianza.

**fixantzia eiñ** (c). aditza. Hacerse responsable en una compra-venta de terceros. Ik. **fixáu. fixantzia jarri** (c). Depositar la fianza.

**FIXÁU1. fixáu** (b). da aditza. Fidatu. • Fiarse, confiarse. *Ez ari fixau orrekin, txorimalo samarra dok eta./ Koiñatuakin fixatzen zan bakarrik.* Ik. **fixo izan. fixatzekua (ez) izan** (No) ser de fiar. *Ezixozu diruik laga, ezta fixatzekua ta./ Fixatzekua balitz esango notsa.* **gutxi fixau1. gutxi fixau** (c). esapidea. Larri ibili. *Gutxi fixau atsalderako trumoia entzuten.* **2. gutxi fixau** (c). Ez fiatu. *Gutxi fixau jente orrekin.* **2. fixáu** (c). da aditza. Hacerse responsable en una compra-venta de terceros. *Aren fixantzia eitten da ba, onek erosi dau, zuri beixa, bai&ntilde;a zuk au eztozu ezautzen, ni ezautzen nazu. Zuk esaten dozu: &ldquo;Bai, bai, emoixok, neu fixatzen nok&rdquo;; &ldquo;Responsable&rdquo;; esaten moduan. Don.* Ik. **fixantzia eiñ.**

**FÍXO IZAN** (c). da aditza. Fio izan, fiatu. • Fiarse. *Autodeterminaziñua ainddu dabe, baiña enaiz bape fixo./ Nausixa ezta fixo ofizinista barrixakin.* Ezezkoetan, batez ere. **Fixau eta fixo izan** sinonimotzat har daitezke, baina lehena testuinguru guztietan erabiltzen da eta bigarrena berriz ez.

**FLAKÁTU** (a). da aditza. Argaldu. • Adelgazar. *Jente guztia flakatu naixan dabill.* Ik. **argáldu.**

**FLÁKO, flakúa** (a). adjektiboa. Argala. • Flaco, -a. *Flakua baiña ximela dago Antonio.* Ik. **árgal.**

**FLAKÓSTA, flakostía** (c). adjektiboa. FLAKOTXA. Flako samarra. • Bastante flaco. *Ez tok ezautzen? Bai, alako surluze flakosta bat./ Bikixak dittuk baiña bata flakostíaua bestía baiño./ Zortzi pixatzeko gari ona biar, esateben. Gari flakotxa samarrak sei, zazpi... Beran piso netua berrogetazortzi ei zan. Hil.* Ik. **ánega.**

**FLÁMENKA, flámenkia** (c). adjektiboa. Emakume argal eta dotore jantziengatik esan ohi da. • Dícese de mujeres delgadas y bien vestidas y acicaladas. Se dice, a veces, con cierto tono

despectivo o de envidia. *Alako emakume flamenka batekin ezkondu zan, da Donostian bizi da.*  
**flaménkona, flaménkonía** (c). adjektiboa. ( adierazkorra.) Flamenka (ikus). *Orren arrebia alako flamenkona bat don.*

**FLATER** Ik. **pláter**.

**FLÁUTA1. fláuta, fláutia** (b). izena. Flauta. *Flautia joten ikasi dau.* Ik. **flot. txakurrán fláutia!** (b). interjekzioa. ( arrunkeria.) Un jamón con chorreras. &laquo;Txakurraren txilibitua&raquo;; alegia. **2. fláuta, fláutia** (b). adjektiboa. Txorimaloa. • Bobo, de poco seso. *Eztakitt personia zela izan leiken ain flautia.*

**FLÉMA, flemía** (b). izena. Eztarrian sortzen den mukia. • Flema. *Asko erre ezkeru bixamonian flemia eukitzen da eztarrixan.*

**FLOJÍAU** (c). da aditza. Ahuldu materiale bat. *Gaztaiña zarrei-tta be eitte jakuek kipulia, eta piñuai be bai.* *Flojjau, materiala ondatu, bastotu, eskaxtu ziero. Klem.*

**FLOJO, flójua** (b). adjektiboa. Flojo, -a.

**FLOT1. flot, flóta** (c). izena. . Sambucus nigra. Intxusa.&nbsp; Saucó Sin. **sakúta, salúparda, intxusa.** Ik. **máusa. 2. flot, flota** (d). Sastraka honen makilaz (barru hutsa du) egiten zen txistu modukoa, antzinako umeen jostailua. Etim.: "Flauta" (?)

**FOBALL, fobálla** (c). izena. (Eibar, Soraluze) FORJÁRI. Futbola. Hala deitzen diote oraindik adin puskateko plazentziar eta eibartarrek. • Fútbol. Así lo denominan todavía los eibarreses y placentinos de cierta edad. *Gaztetan tertzeran jokatu najuan foballian./ Lengo foballa ta oingua total diferentiak dittuk.* "Foot-ball" ingelesez bezala idazten zen hasieran egunkarietan, eta hortik foballa. Gaur egun, fubola. Ik. **réfere**.

**FORJÁRI, forjaríxa** izena. Forjador. *Lengo forjarixak gizon indartsuak izaten zien.*

**FORJÁU** (c). izena. Burdina edota altzairuzko pieza bati, sutegian ondo berotu ondoren, mailuarekin nahi den forma eman. • Forjar. *Onddio emen eongo ra piezan bat, forjeten notsena, gastauta eongo ra; kazua fundidue, da tak! tak! golpeka golpeka kazue forjetan notsan, Bix.*

**FÓRMA1. forma, formía** (b). izena. Modua. • Forma, manera. *Ori ezta gauzak eitteko formia.* **2. forma, formía** (c). izena. La hostia consagrada. Ik. **óstia**.

**FÓRMAL1. formal, formála** (b). adjektiboa. Zintzoa. • Formal. *Oso mutill formala da.* **2. fórmal** (a). adberbioa. Zintzo. • Formal. *Formal ibilli zaitte.* Ik. **gauza formálik. 3. fórmal** (c). adberbioa. Benetan. • En serio, de verdad.

**FORMÁLDU** (a). da aditza. Zintzotu. • Volverse formal. *Zuen mutikua ziero formalduta dago.* Sin. **zintzótu**.

**FORMALIDÁDE, formalidadía** (b). izena. Formalidad, seriedad. *Arrokerixa asko ta formalidade gutxi dago etxe ontan.*

**FORMÓE, formóia** (a). izena. Formón. Ik. **trintxa, zíntzel**.

**FOT**, **fota** izena. (Eibar) "Clase de pan, bollo. *Fota izaten zuan*

**FOTOGRAFÍA**, **fotografixía** (a). izena. Fotografía. Sin. **errétratu**.

**FOTÓGRAFO**, **fotógrafua** (a). izena. Fotógrafo. Sin. **erretratísta**.

**FRABIKA** Ik. **fábrica**.

**FRÁILLE** (Elosu) **PRÁILE** (ELOS., OS.). **1. fraille, fraillía** (a). izena. Fraile. *Ori neuri Gomozkortako prailiak neuri esana. Prailian dozenia amairu* (c). esaera. (Eibar) "Neurria baino gehiago hartzeko (edo emateko) prest daudenei buruz esan ohi da. Fraileen dozena hamabikoa izan beharrean hamairukoa omen da. <i>Fraile-katilua</i> ere ohizkoa baino handiagoa izaten da" *Emoixozu apur bat geixago, badakizu, fraillien dozenia, amairu*. **2. fraille, fraillía** (c). adjektiboa. Ekintza baino berriketa gehiago dutenei esaten zaie despektiboki. *Eztok txarra, baiña fraille samarra*.

**FRAILLE-BERBETA**, **fraille berbetia** (c). Hitz jario handia, baina ezer gutxi esaten duena. *Gaztetxeukuok udaletxera juan gaittuk zerbaitt konpontzera, baiña fraille-berbetia besterik etxuau entzun. (TSE Berb)*.

**FRAILLE-KÁTILLU**, **fraille-kátillua** (d). izena. (Eibar) Katillu haundia. *Fraille-katilluan kafia ta esnia zopekin, aren barau austia. (Etxba Eib)*. Sin. **jesús-kátillu**.

**FRÁIXKO** (b). (lagunartekoa.) Frantzisko. *Etxebartiko Fraixkokin egon naiz barriketan. Inoiz Fraixkomilien zentzuan ere entzuten da.* Ik. **Fraixkomilien**.

**FRAIXKOMILIÉN** (d). izen propioa. Mutil-koxkorrei esan ohi zieten gurasoek, osabek, erdi brometan. *Gaur be ein ddau okerren bat gure Fraixkomilienek.* Etim.: Fra(ntz)isko+Millan. (?). Ik. **Txóonpio**.

**FRAKA** Ik. **práka**.

**FRAKA ARRATEDUN** Ik. **seboliñ**.

**FRAKANASAI**, **frakanasaixe** adjektiboa. (Leintz) Calzonazos.

**FRANKÍA**, **frankixía** (d). izena. Ugaritasuna. • Franquía. *Gosia guk ezkiñuan pasau, gosia esateko; frankixaik pe ez, baiña gosia esateko ez. Ben.* la galdua.

**FRÁNKO** **1. franko** (c). zenbatzailea. Asko, ugari. • Mucho, abundante. *Orrek pe gizurra franko esaten dau./ Eurixa franko ein ddau gaur gabian.* Normalean mugatu singularrean doa aurreko izena, baina mugagabeen ere entzun daiteke: *gizur franko; euri franko.* **2. fránko, fránkua** (c). adjektiboa. Franco, -a, honrado, -a, generoso, -a. *Zuen aittajuna gizon franko askua zuan./ Gure gizona oso frankua zan. Makiña bat afari ein neban nik. Ben.* **3. fránko, fránkua** (c). adjektiboa. Zuraz, adibidez, jarduterakoan, lantzeko ona, ezustean apurtzen ez dena. *Baiña erdiko ori pitzakorraua da, ta bestia frankuaua. Sebas.*

**FRANKÓLIÑ**, **frankoliña** (c). izena. Bhurinus oedinemus. Paseko txoria; udazken aldera gaez entzun ohi dira bere zaratak. • Alcaraván. *Gaur gabian frankoliñ zaratak entzun die, pasau ezindda ero ibiliko zien itxuria.*



**FRANTSES-KATU, frantses-katua** (c). izena. (Oñati) "La jineta; se cogen en Aranzazu." (Izag <i>Oñ</i>).

Sin. *katajineta*. Sin. *jínet*.

**FRANTXULET1. frantxulet, frantxuleta** (d). Txirula, flauta. *Flautia ikisi neban lelengo. Ta frantxuleta be bai.* (Lar Antz) **2. frantxulet, frantxuleta** (d). adjektiboa. (Antzuola) "Pertsona arina, txoriburua, kaskal samarra, seriotasun gutxikoa" (Lar Antz). Bergarako gizon bati &laquo;Frantxulet&raquo; deitzen zioten; oso jarduntsua omen zen. Sin. *kaskari&ntilde;*, *txilibitu* .&raquo; (Lar Antz). Sin. **kaskáriñ, txilibittero, txóliñ, txilíbittu**.

**FRÁNTZES1. frantzes, frantzésa** (a). izena. Francés. Nazionalitatea zein hizkuntza. FRANTXES dio Hilarik frantsesteke gerrateari buruz mintzatzerakoan: *Ezin leike ointxe urte askuan frantxesak aguentau. Hil.* FRANTXES dio Hilarik frantsesteke gerrateari buruz mintzatzerakoan: *Ezin leike ointxe urte askuan frantxesak aguentau. Beste batean PRANTZES dio. Prantzes be bastante, bastante arek. Gerrate danian Frantzian.* **2. frantzes, frantzésa** (d). izena. Sagar mota bat.

**FRANTZES-ÁRBI, frantzes-arbíxa** (d). izena. . Goizagoko arbi mota bat. Buru txiki eta luzexka egiten du eta basto samarra omen da. *Goizao etortzen dana, ereiñ be lentxuao eitten da. Don.*

**FRANTZES-BÉDAR, frantzes-bedár** (c). izena. . Sekulabelarra. • Trébol. Sin. **sekula-bédar**.

**FRANTZÉS-ÉUSKALDUN, frantzés-éuskalduna** (b). izena. Iparraldeko euskalduna.

**FRANTZES-GÓLDA, frantzes-goldía** (d). izena. Bi norabideetan goldatzen zuen burdinazko golda gurpil gabea. *Au zan buelta emutekua, alde batera ta bestera. Dana burdiñazkua. Don. Ik. golda áundi, zurgólda.*

**FRANTZES-TÉILLA, frantzes-teillía** (d). izena. Teila mota bat, ohizkoa baino finagoa. *Len pizarria ipintzen zuan, baiña oin pizarrian imitaziñua preparau eitten juek frantzes-taillian-da moduan. Don. Tailla dio Donatok.*

**FRANTZÉSTEKO GERRATE, frantzésteko gérratia** (d). izena. FRANTXÉSTEKO GERRATE. Frantsesen kontrako gerratea, Napoleonen garaikoa, ziur asko. Honen oroitzapena gaurdaino heldu zaigu Eguzkitzako Hilariren bitartez, honek bere birramonari entzundakoak kontatu baitizkigu. • La Francesada. *Jeneralan zaldixen kortia egon i zan Gomozkortan, jeneralan etxia frantzesteko gerratian. Hil./ Frantxesak anka jaso zittuala ta, erretirau zala ta, kitto. Alaxe geratu i zan frantxesteko gerratioi. Hil. Ik. Gomózkorta.*

**FRANTZÍA** (a). izen propioa. Francia.

**FRANTZÍA EUSKÁL** (d). izen propioa. Ipar Euskal Herria. *Frantzia Euskal Errixan zelai asko ta labrantza gutxi ikusten da.*

**FRANTZÍA-ÍPAR, frantzía-ipár** (d). izena. FRANTZI-IPAR, FRANTZI-AIZE. Ipar-ekialdetik jotzen duen haize hotza, hotzena. • Viento del noreste. *"Frantzí-iparra, frantzí-aizia:*

**FRANTZÍA-KLABÉLIÑA, frantzía-klabéliñia** (c). izena. . Dianthus barbatus. Clavel chino. Bestea

baino askoz lore txikiagokoa. Oso polita eta usain gozokoa. Begi nekatu eta minduak osatzeko erabili izan omen da.

**FREFRÍSTO** (d). izen propioa. Esaera da antzina formula honekin bataiatzen zituztela ijitoek beren umeak: *Frefristo Frefristo, kasta gogorra, neskia baldin bada Maritxu, mutilla baldin bada Martintxo, ofizio enpliau, astobuztanmoztaille, ero txorroztaille, koño!* Gure aita-zanari entzuna. Manolo Urbietak badu haur-kanta bat egina hitz hauekin. *Frefristo hori zer den ez dakigu.*

**FREGÁDERA, fregáderia** (a). izena. Fregadera. Ik. **arri**.

**FRÉNTÉ, fréntia** (c). izena. El frente de guerra. *Guretik pa frentia bistarauan zeuan. Klem./ Gure Txarako tio Kuban egon zuan gerran, zazpi urtian ero, eta itxuria frentia txarra zuan an be. Klem./ Gero frentera joan biar bera be. Klem.* **frente emon** (b). dio esapidea. Aurre egin. *Gure katuak frente emoten dotsa txakurraí.* Sin. **aurre egin**.

**FRESKÁTU** Sin. **freskátu, freskatu**.

**FRESKÁTXONA, freskátxonia** (c). adjektiboa. Arduragabea, freska, baina zentzu despektiboagoaz. • Frescachona. *Aspaldixan parrandia besteik eztabiñ e; freskatxona majua eindda ago í.* Ik. **fresko, -a**.

**FRÉSKERA, fréskeria** (c). izena. Esnea, gazta, haragia eta abar fresko samar, eta euli eta katuetatik babestuta eukitzeko izan ohi zen sare estuz eginiko kaxa. • Fresquera. *Nebera ere deitzen omen zitzaion.*

**FRÉSKO1. fresko, -a, freskúa** (a). adjektiboa. Fresco, -a. *Zerbeza fresko bat erango neuke.* **2. fresko** (a). adberbioa. Fresco. *Gaur fresko eitten dau.* **3. fresko, -a, fréskua, -ia** (c). adjektiboa. Arduragabe xamarra. Ez du konnotazio oso despektiborik. • Frescales. *Gaur neska batekin da biar beste batekin; fresko majua eindda ago í./ Biar esamiña eta oinddio estudixatzen asteke. I aiz freskia í./ Semeik gaztenak fresko galanta izen biar ei dau.* Ik. **freskátxona, freskura**.

**FRESKÚRA1. freskura, freskuría** (b). izena. Frescura. *Gaur goizian freskura ederra zeuan./ Ederki egoten da freskuran./ Etarazu esnia freskurara mudau eztañ.* **2. freskura, freskuría** (c). izena. Ganora falta, patxada larregia. • Cachaza. *Ordubatak eta bazkaixa gertatzen asteke; ik daukak ik freskuria.*

**FRIKÁTXA, frikatxía** (d). izena. Tripotxak. • Sangrecilla y tripas de cordero. *Gaur frikatxia daukagu jateko.* Tripotxak eta frikatxía, biak esaten dira, baina *frikatxa /a/ organikoduna da eta singularrean erabiltzen da eta trípotx, berriz, /a/ gabea eta pluralean.*

**FRÍXKU, fríxkua** (c). izena. . BRÍXKU. Amygdalus persica. Prisco, pavía. Lehen baserri ingurutan baziren frixkuak, baina badirudi galdu egin direla gehienak. Batzuek alberretxikoekin konfunditzen dute. Ik. **alberretxiko**.

**FRÍZTIXA, fríztixia** (d). izena. PÍZTIXA, PRÍZTIXA. Piztia. • "Dícese de todo animal que se supone dañino." (Etxba Eib). *Patata-landara pillia dago sustarra janda. Eztakitt nik ze fríztixa dabillen. /a/ organikorik gabe ere entzun daitezke: frizti, pizti, prizti.*

**FRÓNTAL, frontála** (d). izena. Etxearen egituran hormatik hormara, ezkerrekotik eskumakora doazen habeak. • Tirante viga. Don.k *tijera-zapata deitzen dio frontal nagusiari, tijerakoari, eta behekoei frontal.* Ik. **tijera**.

**FRONTÓE, -I, frontóia** (a). izena. Frontón.

**FROTÁU** (b). du aditza. Frotar, tratándose de ropa, principalmente. *Frotau geixao zerian bada, ta osterá eskuan baldin bada zikiña kentzeko &ldquo;igurtzik ori gogor&rdquo;. Erropan bada ba frotau. Don. Ik. **igurtzi**.*

**FRÚTA, frutía** (a). izena. Fruta.

**FRÚTU, frutúa** (b). izena. Fruto. *Euskerazko klasiak eztakitt zenbateraiñoeko frutua emongo daben.*

**FUAN** Ik. **joán**.

**FÚBOL, fubóla** (a). izena. Fútbol. Ik. **foball**.

**FUBOLÍSTA, fubolistía** (a). izena. Futbolista.

**FUBOL-KANPO** Ik. **kanpó-fútbol**.

**FUBOL-PARTÍDU, fubol-partidúa** (a). izena. Partido de fútbol. *Fubol-partidua jokatu dou. Baita: partido-fubola jokatu dou. Sin. **partídu-fútbol**.*

**FU EIÑ** (a). aditza. ( haur hizkera.) Putz egin. • Soplar. *Ein fu, zopia berua dago ta.*

**FUEN** Ik. **joán**.

**FUENTE, fuéntia** (b). izena. Fuente (ontzia).

**2. FUERA** Ik. **júera**.

**1. FUÉRA!1. fuera!** (a). interjekzioa. Kanpora! • Fuera! *Fuera emendik eta ez etorri geixao. Sin. **kánpora!** 2. fuera* (a). posposizioa. Kanpora. • Fuera de. *Aura etxetik fuera dabill aspaldixan./ Orrek eskolatik fuera eztá liburuik zabaltzen. -tik fuera. Sin. **kánpora**.*

**FUÉRAKA** (b). Pelotan taldean jokatzeko modu arrunta. Tantoa galdu ahala jokalariak kanporatu egiten dira. • Manera usual de jugar a pelota en grupo, eliminando sucesivamente a los que pierden el tanto. *Errekreo denporan fueraka jokatzen giñuan. Sin. barruka. &laquo;A barrus barrus&raquo;; esan izan dute kaletar askok.*

**FUÉRTE1. fuerte, fuértia** (a). adjektiboa. Indartsua, gogorra. • Fuerte. *Oso mutil fuertia da. 2. fuerte* (a). adverbioa. Gogor. • Fuerte. *Jo fuerte pelotia.*

**FUMAU** (a). aditza. Fumar. Sin. **erre**.

**FUNDÁMENTU, fundámentua** (b). izena. Ganora. • Energía, formalidad, garbo. *Eguardixa ta oinddio bazkaixakin asi barik. Zelako fundamentu gutxi daukazun. .fundamentu gutxiko* esapidea. Sin. **gánora gutxíko. fundamentuz** esapidea. Sin. **gánoraz**.

**FUNDAMENTU GUTXIKO** esapidea. Sin. **gánora gutxíko**.

**FUNDAMENTUZ** esapidea. Sin. **gánoraz**.

**FUNDÁMENTUZKO, fundámentuzkua** (b). izenlaguna. De fundamento. Ik. **gánorazko**.

**FUNDÍDU** (a). aditza. FUNDIRU (LEIN.). Mea edo metala urtu. • Fundir. *Labe altuak soplantiak-eta zauken su eitteko, eta tolba batian gora ixotze zan minerala ta an funditze zan; aura etaratze zan gero olako kanal batian, ta formak emote jakuen. Don.* Sin. **urtu**.

**FUNDIZIÑO, fundiziñúa** (a). izena. Fundación.

**FUNÉRAL, funerála** (b). izena. Funeral. Ik. **elizkízun, entiérru -o, okasiño**.

**FURRUSTÁRA, furrustaría** (b). izena. PURRUSTÁRA. Norbaiti berotasunean egin ohi zaion haserrealdi laburra. • Refunfuño, bufido. *Berandu aillegau nitzalako furrustaria ein zotan uezabak.* Katuak, ezustean harrapatutakoan, egin ohi duenari ere hala esaten zaio. Sin. **erremuskára, murruskara. furrústaka** (c). adberbioa. Furrustadak egiten. • Refunfuñando. *Egun guztia furrustaka pasatzen dozu./ Furrustaka jardun jostak aguazillak. Don.*

**FUSTURI** Ik. **jústuri**.